

## **GALLARTA ASEGURU-JARDUERARIK GABEKO ERAKUNDE BEREIZI GABEAREN EZOHIKO BATZAR OROKORRERAKO DEIALDIA**

Bazkide agurgarria:

Honen bidez, Gallartako aseguru-Jarduerarik gabeko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde bereizgabearen behin-behineko Gobernu Batzordeak, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspeneko zuzendariaren 2025eko maiatzaren 30eko Ebazpenaren bidez izendatuak, dei egiten dizu **Serantes Kultur Aretoa** (Gabriel Aresti Kalea, s/n, 48980 Santurtzi dagoena) 2025eko uztailaren 15ean, 18:00etan lehenengo deialdian eta 18:30ean bigarren deialdian egingo den Batzar Orokorrera.

Hoja hemen gai-zerrenda:

1. Erakundearen egoeraren azalpena eta Finantza Politikako eta Gizarte Aurreikuspeneko Zuzendaritzaren jarduerak BGAE aseguru-jarduerarik gabeko Gallarta Erakunde Bereizi gabeari dagokionez.
2. Erakundeak Zuzendaritza Batzorde berria izendatzen jarraitzeko proposamena edo, bestela, egungo Zuzendaritza Batzordeak Erakundea desegiteko behin-behineko berrespena.
3. Aurreko paragrafoan Batzarrak Erakundea desegitea erabakitzen badu, bi aukeraren artean aukeratuko da:
  - a. Beste erakunde batek heriotza prestazioa estaltzen jarraitzea bazkide guztientzat, bereizi gabe. Erakunde berriak eskaintzen dituen kostuen eta estalduren berri eman ahal izateko, bertako kideak Batzarrera joango dira baldintzak azaltzera eta bazkideen zalantzei erantzutera.
  - b. Erakundea desegitea eta likidatzea.
4. Likidatzaileak izendatzea
5. Akta onartzea
6. Galde-eskeak

Batzar Orokor honetan aztertu beharreko gaien garrantzia dela eta, bertaratzeko eskatzen dizugu, eta, joaterik ez baduzu, botoa beste bazkide bati eskuordetzeko, BGAEei buruzko urriaren 27ko 203/2015 Dekretuaren 8.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz. Alde horretatik, bozketaren zenbaketa errazteko, botoa batzar orokorrean

beste pertsona baten esku utzi nahi baduzu, ordezkartzaren kopia bat jakinarazi beharko duzu:

1. gutun bidez, helbide honetara bidaliz:

Gallarta, BGA Eren behin-behineko Gobernu Batzordea  
EUSKO JAURLARITZA - Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspeneko Zuzendaritza  
Donostia kalea 1  
01010, Vitoria-Gasteiz

2. Edo posta elektronikoko helbide honetara: [epsv@euskadi.eus](mailto:epsv@euskadi.eus), postaren gaiari "botoa eskuordetzea" adierazita.

Eskuordetza hori, gutunez edo posta elektronikoz, Batzar Nagusia egin baino 48 ordu lehenago bidali beharko da gutxienez, eta bertan botoa nork emango duen adieraziko da (izena eta NAN).

Gobernu Batzorde berri bat eratzeko bazkideen hautagaitza bat proposatzen bada, 24 ordu lehenago bidali beharko da batzorde berria eratu nahi duten bazkideen zerrenda lehen aipatutako posta elektronikora, eta posta elektronikoen gaiari "Gobernu Batzorde berriaren proposamena" adierazi beharko da.

Deialdi honi lotutako dokumentazioa eskuratzeko, esteka hau erabil daiteke:  
[https://www.euskadi.eus/informacion/epsv\\_informacion/web01-a2finan/es/](https://www.euskadi.eus/informacion/epsv_informacion/web01-a2finan/es/) Ogasun eta Finantza Sailaren webgunean dago eskuragarri, Gizarte Aurreikuspenaren ataleko Informazio Orokorraren atalean.

Interesatuak aldez aurretik bertaratzeko eskatzen zaie, bazkideen erregistro egokia eramteko.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 30a